

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA

#### **Hasierako onespena ematea Gasteizko HAPOko Larrein 13. sektorean Errekaleor ibaiaren gainetik igarobide bat gauzatzeko proiektuari**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko uztailaren 22an egindako bilkuran, Gasteizko HAPOko Larrein 13. sektorean Errekaleor ibaiaren gainetik igarobide bat gauzatzeko proiektuarekin lotuta:

1. Hasierako onespena ematea Gasteizko HAPOko Larrein 13. sektorean Errekaleor ibaiaren gainetik igarobide bat gauzatzeko proiektuari; L. M. O. M. arkitektoak idatzi du proiektua, eta gauzatzeko zenbatekoa 147.421,91 euro da, BEZa barne, beraz, horixe izango da lehia-oinarria kontratatzekeko prozeduran.

2. Erabaki hau jendaurrean jartzea, eragindakoei jakinarazita, alegia, eragindako sektoreetako konpentsazio batzarrei. Halaber, ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean argitaratzea, edozein interesdunek proiektua aztertu eta hogeit eguneko epean –jakinarazten zein argitaratzen denetik kontatuta– egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

3. Proiektua Ensanche 21 Zabalgunea, SA Gasteizko udal hirigintza elkartearen egoitzan egongo da ikusgai (Frai Francisco Vitoria ibilbidea, 21 C, Gasteiz).

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 26an

*Alkate lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**